


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,3 igo ziren 2012ko irailean aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2012ko iraila, 2011koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %0,9 handitu dira

2012ko irailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,3 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,9, EUSTATen datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2012



(*) Gehikuntza irailako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2012ko irailean, aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,3 igo dira.

Irailean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek igoerak izan dituzte lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,4koa aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,1ekoa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,6 igo ziren; Obra zibilekoak %2,0.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Petrolio-fintzea (%11,2), Energia elektrikoa eta gasa (%11,1), eta Makineria (%5,4) nabarmentzen dira, besteren artean. Berriz, urteko prezioetan (2012ko iraila 2011koaren aldean) jaitsierak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Metalurgia (%-3,9), Ez-metalezko produktu mineralen fabrikazioa (%-0,6), Zurgintza (%-0,1).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2012KO IRAILA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA	ALDEAREN %		
	2005 = 100 Oinarria	Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	121,0	0,3	0,9	0,4
ERAIKINAK	119,6	0,3	0,7	0,1
OBRA ZIBILA	125,9	0,1	1,8	1,2
LEHENGAIEN KOSTUA	120,2	0,3	0,9	0,2
ERAIKINAK	118,5	0,4	0,6	-0,1
OBRA ZIBILA	126,6	0,1	2,0	1,3
LAN-ESKUAREN KOSTUA	124,1	0,0	1,0	1,0

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiagorako:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

[Euskal Aeko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.](#)

[Euskal Aeko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.](#)